



Idiazabalen, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita batean

ELKARTUTA

Alde batetik, **IORITZ IMAZ BAZTARRIKA** jauna, Idiazabalgo Udaleko Alkate-Udalburua.

Bestetik, **MIREN IÑAKE ETXEBERRIA ORMAZABAL** andrea, 72.436.565-C NAN zenbakiduna, Segurako udalerriko Kale Nagusiko 23.an helbideratua, **UGARTEMENDI IKASLEEN GURASO ELKARTEA**ren izen eta ordezkartzan.

ARI DIRA

IORITZ IMAZ BAZTARRIKA jauna, Idiazabalgo Udalaren izenean, dokumentu hau sinatzeko berariaz baimenduta, Idiazabalgo Udalbatzak 2016ko abenduaren 23an egindako ezohiko bileraren ondorioz (2017ko Aurrekontua onartu zuena).

MIREN IÑAKE ETXEBERRIA ORMAZABAL andrea, **BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEA**ren izen eta ordezkartzan, IFZ G20060836 zenbakia duena eta Beasaingo udalerriko Ugartemendi kaleko 6an helbideratua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Nagusian inskribatua 1975eko urriaren 31ean emandako Ebazpenaren ondorioz, AS.R.P.G.00697 erregistro zenbakiarekin.

Parte-hartzaileek agiri hau sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta hala, hau

ADIERAZTEN DUTE

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. xedatutakoaren arabera, Udal eskumen propioa dira 19. atalean "kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea", eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 l) artikuluaaren arabera "kirola, kirol eraikuntzen eta aisialdiaren sustapena".

Idiazabalgo Udalbatzak, 2016ko abenduaren 23an egindako ezohiko bileran, gehiengoz, erabaki zuen 2017ko Aurrekontua hasieraz onartzea eta, horren barruan, **BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEA**ri zuzeneko diru laguntza izenduna ematea.

Ildo horretatik, Alkate Udalburuak, 2017ko urtarrilaren 27an sinatutako Dekretu bidez, ebatzi du Idiazabalgo Udaleko Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Horren I. eranskinean, hitzez hitz, zera dio:

13/2017

13/2017

- | | |
|---|---|
| 1. . Organo emailea: Idiazabalgo Udala (Kultur Saila) | 1. Concedente: Ayuntamiento de Idiazabal (Dep. Cultura) |
| 2. Zenbatekoa: (130 €/ikasle, 1.800 arte) | 2. Importe: 1.800 (130 alumno hasta 1.800) |
| 3. Finantza iturria: Udala | 3. Fuente de financiación: Municipal |
| 4. Kontu izendapena: 1 422.00.341.00 | 4. Aplicación presupuestaria: 1 422.00.341.00 |



- | | |
|--|---|
| <p>5. Kudeaketa mota. Hitzarmena</p> <p>6. Araudia: Idiazabalgo Udalaren eta Beasaingo Bigarren Hezkuntzako Institutuko "Ugartemendi" Ikasleen Guraso elkartearen arteko hitzarmena, eskolaz kanpoko kirola-, -jarduerak egitea sustatzeko udal diru-laguntzak emateko.</p> <p>7. Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak:</p> <ul style="list-style-type: none">-Kultura eta kirola sustatzea.-Aisialdirako aukera osasungarriak sustatzea. <p>8. Onuraduna. Idiazabalgo dalerrian erroldatutako 14.-16. urteko ikasleak .</p> <p>9. Epea: 2017</p> | <p>5. Modalidad de gestión. Convenio..</p> <p>6. Normativa: Convenio entre el Ayuntamiento de Idiazabal y la Asociación "Ugartemendi" de Padres y Madres de Alumnos/as del Instituto de Enseñanza Secundaria de Beasain para el fomento de actividades extraescolares deportivas.</p> <p>7. Los objetivos y efectos que se pretenden alcanzar:</p> <ul style="list-style-type: none">-Fomentar la cultura y el deporte-Fomentar alternativas saludables de ocio. <p>8. Beneficiario/a: Escolares de 14-16 años empadronados en el municipio de Idiazabal</p> <p>9. Plazo: 2017</p> |
|--|---|

Idiazabalgo udalerrian erroldaturik daude 14-16 urteko 73 nerabe eta Idiazabalen lehen hezkuntza bukatzen duten gehienak joaten dira Beasaingo BIP Institutura.

BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEA du xede Institutuarekin heziketa-jardueretan elkarlanean aritzea, ikasleentzako zerbitzuak antolatzea, kultura-, kirola-, eta artearen alorrean formakuntza-jarduera osagarriak antolatzea eta irakaskuntza osoan gizarte-solidaritatearen, justiziaren eta askatasunaren baloreak eta sentimenduak bultzatzea.

Idiazabalgo Udalak eta **BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEA** dute xede antzekoak eta beharrezkoa da elkarren artean estuan aritzea kirola eta aisialdiari lotutako jarduera eta ekintza osasuntsuak bultzatzea Idiazabalgo udalerrian erroldatutako 14-16 urteko nerabeentzat.

Hori dela eta, bi aldeek ituntzen dute:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmen honen bitartez arautzen da zein baldintzatan emango dion diru laguntza Idiazabalgo Udalak **BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEA**ri xede hauetarako:

- 1- Idiazabalgo udalerrian erroldatutako 14-16 urteko ikasleentzat kirol zerbitzuak antolatzea eta dinamizatzea.
- 2- Kirolaren arloan formakuntza-jarduera osagarriak antolatzea.
- 3- Materialen eta formakuntzarako giza baliabideen (kirol teknikariak, entrenatzaileak, etab) gizarte segurantzako gastuak edo kontratazioak bere gain hartzea.
- 4- Zaintza zerbitzua.
- 5- Eskolako proiektuetan lagundu.
- 6- Jarduera eta ekintzen informazioa zabaltzea interesa duten kolektiboetara (gurasoak, eskolak,, Udala, etab).

Bigarrena. Horretarako, Idiazabalgo Udalak MILA ETA ZORTZI EHUN (1.800,00 €) euro jarriko ditu aurrekontuko 1 422.00.341.00. 2017 " Transf. Arruntak. Laguntzak, "Ugartemendi" Ikasleen Guraso elkarte" kontu izendapenaren kargura (130 €/ikasle).

Diru laguntza bateragarria da helburu bereko beste edozein subentzio, laguntza, sarrera edo baliabiderekina. Diru laguntzaren guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduaren kostua gaituzteko, ez banaka ez beste subentzio laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera.



Hirugarrena. BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEAk egiaztatu du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak ere.

Idiazabalgo Udalak egingo dituen egiaztapenak onartzea, bai abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak, Gipuzkoako Toki erakundeetako Aurrekontuei buruzkoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legerian ezartzen diren finantza kontrolak ere, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia emanez.

Idiazabalgo Udala jakinaren gainean jarriko duela beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berdineko beste diru laguntzaren bat ematen badie, edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada.

Idiazabalgo Udalaren lankidetzaren agertzea diruz lagundutako jarduerari buruz informazioa eman, publizitatea egin edo propaganda guztietan, bere irudi arauak zainduz beti ere. Halaber, euskaraz egingo da lehentasunez, eta gaztelania erabiltzen bada, inoiz ez da erabiliko euskara baino gehiago eta gehienez ere euskara erabiltzen den maiztasun berdinean erabiliko da. Generoaren ikuspegia ere kontuan hartuko da; eta, horrenbestez, ez da diskriminazio elementurik erabiliko ez hizkuntzan ez iruditan ez jardueretan.

Laugarrena.- Idiazabalgo Udalak diru laguntza ordainduko dio **BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEA**ri:

2017ko martxoaren 27an (astelehena): 1.300,00 €

Kutxabank entitateko K/K: 2095 5030 80 1060851457

Bosgarrena. BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEAk 2017ko abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko du :

- Laguntza emateko baldintzak bete direla azaltzen duen jarduera memoria: zer jarduera egin diren eta zer emaitza lortu diren zehaztuta.

- Egindako jardueren kostua zuritzeko memoria ekonomikoa, honako hauek bilduko dituena:

a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita.

b) Fakturak edo trafiko juridiko merkantilean pareko frogak balio duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutakoak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentua.

c) Diruz lagundutako jarduketan finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda zehatua: zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Horretarako, I. Eranskinean dagoen eredia erabiliko du.

Diru laguntza zuritzeko xedatutako epean ez badira aipatutako eredia eta dokumentazioa aurkezten, 15 eguneko epean aurreko dezan eskatuko zaio elkarte onuradunari. Epe berriaren barruan egiaztapenak ez aurkezteak, seigarren klausulan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.



Elkarte onuradunak lau urteko epean gorde behar ditu diruz lagundutako jarduera egin dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Erakunde onuradunak egiaztapenak aurkezteko duen epea amaitzen denean hasiko da lau urteko beste epe hori.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztzen denean, organo emaileak dagozkion egiaztapenak egingo ditu Ondorioztatzen bada diruz lagundutako kostua onartutako diru laguntza baino txikiago dela, edo diru laguntza zurrizteko baldintzak ez direla osorik edo neurri batean bete, edo ez direla diru laguntzaren helburuak bete, onuradun erakundeari gorabehera horren berri emango zaio egindako egiaztapenaren emaitzekin batera eta seigarren klausulan aurreikusita dagoen bezala jokatu da.

Seigarrena.- Onuradun izatearen konpromisoagatik **BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI" IKASLEEN GURASO ELKARTEAK** Idiazabalgo Udalak antolatutako edozein ekintzatan lagundu beharko du, Udalak hala eskatzen duenean.

Zazpigarrena.- Elkarte onuradunak hitzarmen hau aldatzea eska dezake, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Halatan, eska dezake ezarritako epeak luzatzea, onartutako zenbatekoa murriztea, edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea, eta eskatutakoa onartua izango da baldin eta aurreikusi ezin diren gorabeherak gertatu badira edo beharrezkoa bada jardueraren burutzapen egokirako, betiere diru laguntzaren xedea edo helburua ez bada aldatu eta ez badio hirugarren bati kalterik egiten.

Idiazabalgo Udalak hitzarmen hau alda dezake erakunde onuradunari jakinarazi ondoren eta funtsak erabili aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek lortu nahi den interes publikoa eragotzi edo oztopatzen badute eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik egiten.

Elkarte onuradunak zurrizteko agirian jakinarazten badu aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazitakoaren arabera ebazpena aldatu egin zitekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian Idiazabalgo Udalak aurkeztutako egiaztapena onartu ahal izango du nahiz eta horrek ez duen onuraduna salbuesten azaroaren 17ko Legearen 61.-63. artikuluen arabera dagozkion zigorretatik.

Zortzigarrena.- Onuradunak ez badu betetzen hitzarmen honetan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetakoren bat, laguntza hau jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, legezkiekeen berandutza interesekin batera, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 40. atalak xedatutakoari jarraituz, eta erantzukizunak eskatuko zaizkio, aipatutako 38/2003 Legeak xedatutakoaren arabera. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, indarrean dagoen diru laguntzei buruzko araudiarekin bat etorritik.

Lanaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten daiteke, bi aldeen artean adostua.

Bederatzigarrena.- Hitzarmen honek sinatzen den egunetik hasi eta 2017ko abenduaren 31era arte izango du eragina; eta edonola ere, hartutako konpromisoak erabat bete arte, hurrengo klausulan ezarritakoaren kaltetan gabe.



Hamargarrena.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia pasatu delako edo hitzarmena hautsi delako iraugiko da. Alderdietako batek bere gain harturiko konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko, edota hitzarmena amaitutzat eman dadin eskatzeko. Halaber, diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolana ere, diru laguntza hauez gain beste erakunde publiko nahiz pribatuengandik besteren bat jasoz gero, lankidetzaz hitzarmena aldatu edo iraugi daiteke. Deseginez gero, alderdiek amaieraren baldintzak eta gauzatze bidean dauden jardueren ordainketak zehaztuko dituzte.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen hau izaera administratibokoa da. Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak erabakiko ditu.

Hitzarmen honetan arautzen denaz gain, aplikatuko dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra eta uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru laguntzen Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Eta ados daudela frogatzeko, hitzarmen honen hiru ale sinatzen dituzte, goi-buruan ageri diren lekuan eta egunean.

IDIAZABALGO ALKATE
UDALBURUAK

Ioritz Imaz Baztarrika

BEASAINGO BIGARREN HEZKUNTZAKO
INSTITUTUAREN "UGARTEMENDI"
IKASLEEN GURASO ELKARTEA
Miren Iñake Etxeberria Ormazabal

Nire aurrean,
IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin



